

IRAKASKUNTZA-GIDA 2018/19

Ikastegia 231 - Psikologia Fakultatea

Zikl. Zehaztugabea

Plana GPSICO20 - Psikologiako Gradua

Ikastaroa 2. maila

IRAKASGAIA

25080 - Psikopatologia

ECTS kredituak: 6

IRAKASGAIAREN AZALPENA ETA TESTUINGURUA ZEHAZTEA

Psikopatologia 6 kredituzko derrigorrezko gaia da eta psikologiako graduaren bigarren ikasturtean egiten da. Irakasgai honen helburu nagusia, ikaslea psikearekin zerikusia duten nahasteen inguruan trebatzea da. Horretarako, hauen izate eta semiologian sakonduko da, egun indarrean dauden sailkatze metodoetan sakonduz. Taxonomia nagusiak arakatzear gain, psikologiako alor ezberdinek patologien inguruan ematen dituzten ikuspuntu desberdinak jorratuko dira.

GAITASUNAK / IRAKASGAIA IKASTEAREN EMAITZAK

- 1.- Psikopatologiaren eredu teoriko nagusiak ezagutzea
- 2.- Koadro psikopatologiko eta sintomen ezaugarriak ezagutzea
- 3.- Psikopatologian azaltzen diren adierazpen nagusiak eta nahaste orokor eta berariazkoak diagnostikatzeko gai izatea.
- 4.- Deontologiko kodearen baitan jasotako konfidentzialtasunez istorio kliniko egiteko eta kasu klinikoaren txostenak egiteko gai izatea

EDUKI TEORIKO-PRAKTIKOAK

1. GAIA. Psikopatologiarako Sarrera, Historia eta Oinarrizko Kontzeptuak
2. GAIA. Hersturarekin loturiko Nahasteak
3. GAIA. Gogo Aldartearen Nahasteak
4. GAIA. Elikadura Portaeraren Nahasteak
5. GAIA. Portaera Sexualaren Nahasteak
6. GAIA. Nahaste Psikotikoak
7. GAIA. Nortasunarekin Loturiko Nahasteak
8. GAIA. Toxikomaniak, Adikzioak eta Jokabide Bulkadekin zerikusia duten Nahasteak

METODOLOGIA

METODOLOGIA

Eskola teorikoak:

Oinarrian, irakaslearen azalpenak izango dira; irakasgaiaren eduki teorikoa transmititzeko helburuarekin. Ikasleen parte hartzea bultzatuko da eta ikus-entzunezko baliabideak erabiliko dira, edukiei erabilgarritasun zuzena emateko asmoz.

Eskola praktikoak eta tailerrak:

Praktiketako fitxak erabiliko ditugu eguneroko lana bildu eta entregatzeko. Bertan, ikasleek, saio bakoitzean egindakoak jaso eta egunean bertan entregatuko dute. Zenbait praktketan, taldeka lan egiteko aukera egongo da (gehienez 4 laguneko taldetan). Ariketa ezberdinak garatuko ditugu, esate baterako, kasu klinikoaren analisisa edota prozesu klinikoaren faseren bat antzeztea.

Seminarioak:

Hauetan, ebaluazio jarraitua hautatuko duten ikasleak, haien gogoko gai bat garatu ahal izango dute eta klase-kideen aurrean era askean aurkeztu. Borondatezkoa.

IRAKASKUNTZA MOTAK

Eskola mota	M	S	GA	GL	GO	GCL	TA	TI	GCA
Ikasgelako eskola-orduak	32	2	13				13		
Ikaslearen ikasgelaz kanpoko jardueren ord.	48	3	19,5				19,5		

Legenda: M: Magistrala

S: Mintegia

GA: Gelako p.

GL: Laborategiko p.

GO: Ordenagailuko p.

GCL: P. klinikoak

TA: Tailerra

TI: Tailer Ind.

GCA: Landa p.

EBALUAZIO-SISTEMAK

- Azken ebaluazioaren sistema

KALIFIKAZIOKO TRESNAK ETA EHUNEKOAK

- Garatu beharreko proba idatzia % 10
- Test motatako proba % 60
- Praktiak (ariketak, kasuak edo buruketak) % 20
- Banakako lanak % 10

OHIKO DEIALDIA: ORIENTAZIOAK ETA UKO EGITEA

Irakasgaia gaintzeko bi bide eskaintzen dira: saio praktikoetara joango diren ikasleei zuzendutako Ebaluazio Jarraitua batetik, eta bere kalifikazio osoa, azterketaren bitartez lortuko duten ikasleei zuzendutako Bukaerako Ebaluazioa, bestetik:

SAIO PRAKTIKOETARA (praktika saioak + tailerrak) ERREGULARKI DOAZEN IKASLEAK (ezinbesteko %ko 80eko asistentzia)

• Azterketa teorikoa. 4 aukera-erantzuneko, test moduko 30 galdera (erantzun zuzenek puntu bat balio dute eta okerrek 0.33 puntuko penalizazioa izango dute) + bi galdera irekiak. Azterketaren balioa azken notaren %ko 70ekoa izango da (%60 test + %10 galdera irekiak)

• Kurtsoan zehar egindako praktikak: Saiotan bertan eta geroko talde-eztabaidetan burututako ekintzak, praktika-koaderno batean bildu beharko dira. Txosten hau entregatzeko epe muga, Maiatzak 18 izango da. Gehienez 4 laguneko taldeetan egiteko aukera dago. Azken notaren %20.

• Gai osagarri baten esposizioa: Seminario batean, hautatutako gai baten aurkezpena egiteko aukera egongo da. Atal honen balioa azkeneko notan, %ko 10koa izango da.

• Irakasgaia gaintzeko, batetik azterketa gaintu eta, bestetik, Praktika-Koadernoaren balorazioan gutxieneko puntuazioa lortu beharko da.

SAIO PRAKTIKOETARA JOANGO EZ DIREN IKASLEAK:

• Azterketa teorikoa. 4 aukera-erantzuneko, test moduko 30 galdera (Erantzun zuzenek puntu bat balio dute eta okerrek 0.33 puntuko penalizazioa izango dute) eta garatzeko bi galdera irekiak. Azterketaren balioa azken notaren, %ko 70ekoa izango da (%60 test + %10 bi galdera irekiak).

• Azterketa praktikoa. Garatu beharko diren bi kasu praktikoaren analisia. Azken notaren %30 (%15 x 2).

• Irakasgaia gaintzeko, bai azterketa teorikoa zein azterketa praktikoa gaintu beharko dira.

Ikasleek eskubidea izango dute azken ebaluazio bidez ebaluatuak izateko, etengabeko ebaluazioan parte hartu zein ez hartu. Eskubide hori baliatzeko, ikasleak etengabeko ebaluazioari uko egiten diola jasotzen duen idatzi bat aurkeztu beharko dio irakasgaiaren ardura duen irakasleari eta, horretarako, bederatzi asteko epea izango du lauhilekoko irakasgaiaren kasuan.

Etengabeko ebaluazioaren kasuan, deialdiari uko egin nahi dioten ikasleek kasuan kasuko irakasgaiaren irakaskuntza aldia bukatu baino, gutxienez, hilabete lehenago egin beharko dute eskaria. Eskari hori idatziz aurkeztu beharko zaio irakasgaiaren ardura duen irakasleari.

Deialdiari uko egiten dioten ikasleek «aurkezteke» kalifikazioa jasoko dute.

EZOHIKO DEIALDIA: ORIENTAZIOAK ETA UKO EGITEA

NAHITAEZ ERABILI BEHARREKO MATERIALAK

BIBLIOGRAFIA

Oinarrizko bibliografia

ÁLVAREZ, J. M., ESTEBAN, R. y SAUVAGNAT, F. (2004). Fundamentos de psicopatología psicoanalítica. Madrid: Síntesis

ASOCIACIÓN PSIQUIÁTRICA AMERICANA (2000). Manual diagnóstico y estadístico de los trastornos mentales (DSM-IV-TR). Barcelona: Masson (original, 1994).

AMERICAN PSYCHIATRIC ASSOCIATION. (1994). DSM-III-R. Burutiko nahasteen estatistiko eta diagnostikorako eskuliburua. E.H.U. Bilbo.

ORGANIZACIÓN MUNDIAL DE LA SALUD (1992). Trastornos mentales y del comportamiento (CIE-10). Madrid: Méditor.

BELLOCH, A., SANDÍN, B. y RAMOS, F. (Eds.) (2008). Manual de psicopatología (2ª Edic.). Madrid: McGraw-Hill. 2 volúmenes.

Gehiago sakontzeko bibliografia

ALVAREZ, J. M., ESTEBAN, R. Y SAUVAGNAT, F. (2004). Fundamentos de la psicopatología Psicoanalítica . Madrid: Síntesis.

ANDRE, j., LANOUZIERE, J. RICHARD, F.(1999). Problemática de la Histeria. Sintesis: Madril

BERGERET, J. (1981) Manual de psicología patologica.Toray Masson, Bartzelona.

BERNARD, P. (1977). Semiología psiquiatrica. Masson, Bartzelona. 1977.

EY, H.; BERNARD, P.; BRISSET, CH. (1975) Tratado de psiquiatría. Toray-Masson. Bartzelona.

FOUCAULT, M. (1976). Historia de la locura en la época clásica. México, Fondo de cultura económica.

FOUCAULT, M. (1995). El nacimiento de la clínica. México, D.F., Siglo XXI.

GRADILLAS, V. (1995). Psicopatología descriptiva. Madril, Eudema.

GUIMON, J. (2008). Salud mental basada en las pruebas. UPV, Bilbo

JARNE, A. TALARN, A.(Konp.)(2.000). Manual de psicología clínica. Paidós: Bartzelona.

MENECHAL, J. (1998). Introducción a la psicopatología. Madril, Alianza.

MIRA, V., P. RUIZ, et al. (2005). Conceptos freudianos. Madrid, Síntesis.

ROUDINESCO, E. AND M. PLON (1998). Diccionario de psicoanálisis. Barcelona, Paidós.

Aldizkariak

Revista de Psicopatología y Psicología Clínica
International Journal of Clinical and Health Psychology
Psicología Conductual
Ansiedad y Estrés
PLIEGUES
Freudiana
Psiquis

Interneteko helbide interesgarriak

www.psiquiatria.com
www.ffcle.es
www.champlacanian.net
www.acheronta.org

OHARRAK